

“Jarrerren arteko gerturatzea eta irtenbide elkarbanatuak errazten dituzten elkarrizketa-espazioak behar ditugu”

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak espazioek “langak eta aurreiritziak disolbatzen” laguntzen duela eta “inmobilismotik ateratzen” ahalbidetzen duela defendatzen du
- EGK-k Bake eta Bizikidetzaren lan-arloak azken hiru urteetan egindako lana laburtzen duten liburua eta dokumentala aurkeztu ditu

Donostian, 2017ko martxoaren 2an. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak “gazteriari hausnarketa eta elkarrizketa espazioak eskaintzen jarraitzearen” garrantzia nabarmendu du “hainbat jarrerren gerturatzea eta irtenbide elkarbanatuen benetako bilaketa” egon dadin, “langak eta aurreiritziak disolbatzen” lagun dezan eta “zenbait sektore ideologiko oraindik murgilduta dauden immobilismotik ateratzea” ahalbidetzeko. “Soilik era honetan lortuko dugu pertsona gazteak bakea eta bizikidetzaren orainaldian finkatzeko esfortzuan partaide sentitzea eta iraganean gertatutakoa errepika ez dadila bermatzea”, azpimarratu du Maialen Olabek, EGK-ko presidentak.

San Telmo Museoan gaur arratsaldean izan den ekitaldira bertaratu dira, besteak beste, Jonan Fernandez, Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzaren idazkari nagusia; eta Miren Azkarate, 2016 Hiriburutzako, Kulturako, Euskarako eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkaria. Egitasmoan 250 gazteren ekarpenak batzen dituen ‘*Gazteak eta Bakea. Iraganari buruzko hausnarketak, orainaldiko aukerak, etorkizuneko erronkak*’ liburua aurkeztu eta ‘*Gazteon aukera: elkarbizitzaren erronka*’ dokumentala proiektatu dira. Olabek nabarmendu du bi lanek “pluraltasunetik bertute egiteko” EGKren gaitasuna frogatzen dutela. “Izaera anitzeko ia 60 gazte elkartez osatuta gaude. Eta hauek dira, hain zuzen ere, EGKri interes alderdikoen gaintik proiektu bateratu eta bateratzailea artikulatzeko erronka eta legimititatea ezartzen diotenak”, adierazi du EGK-ko presidentak.

Olabek “bake positiboarekiko EGK-k bere hastapenetatik” izan duen konpromisoa balioan jarri du, bake positibotzat “indarkeria zuzenaren maila txikia eta justizia eta kultura adiskidetzaille maila handia dituen gizartea” bezala ulertuta eta “indarkeria estrukturala eta kulturala ezabatzea” helburu duena, aldi berean, “harmonia soziala lortzea eta orenen eskubideak errespetatu daitezela bermatzea” bilatzen duena.

“Helburua ez da adostasunetara heltzea, gaia ikuspegi emozional eta gertukoago batetik lantzea baizik”

Bere hitzaldian, Elvira C. García Vidalesek, EGK-ko Bake eta Bizikidetzaren teknikariak nabariarazi du hiru urte hauetan helburu nagusia ez dela izan “adostasunetara heltzea”, baizik eta “pentsamenduez, jokaerez, erlazioez, emozioez, oroitzapenez eta kontradikzioez hitz egitea. Hori dela-eta, adierazi du EGKtik talde txikietan egiten diren dinamiken alde egin dela apustu hauek

“konfiantza modu naturalagoan sortzea ahalbidetzen” zutelako. Era berean, gehitu du emozioetatik abiatuz eta ez ideologietatik, hiru urte hauetan parte hartu duten 250 gazteek “errealitate eta sufrimendu ezezagunekin identifikatu ahal izan” dutela. EGK-ko teknikariaren arabera “enpatia horretatik hasi ziren irtenbide elkarbanatuak bilatzen”.

Bere agurreko mintzaldian, García Vidalesek proiektu guztiek “helburu berberak” izan dituztela adierazi du, horien artean azpimarratuz: “persona gazteak bakegintza prozesuan protagonista gisa ahalduntzea” edo “tresnak” ematea eurek “gatazkak modu eraikitzaile eta barneratzailean kudeatzen ikas dezaten”.